



Altsasuko Udala
Ayuntamiento de Alsasua
I.F.K. / C.I.F.: P-3101000-B

☎ 948 56 21 61
FAX 948 56 38 55
www.altsasu.net
altsasu@altsasu.net
✉ Garcia Ximenez 36 - 31800

ALTSASUN HILDAKOEN ALDEKO AGUR ZIBILAK EGITEKO ORDENANTZA **(NAO 54 zbk, 2009ko maiatzak 5)**

AITZINSOLASA.

Gaur egungo gizarteak jakin badaki, estatu akonfesional eta laiko batean, erakundeek gizabanakoen zein taldeen ideologia, erlijio eta gurtza askatasuna bermatu beharra dutela, eta askatasun horren adierazpenek muga bakarra dute: legearen arabeko ordena publikoa mantentzeko behar den huraxe. Era berean, agerikoa da gure gizartearen dibertsitate ideologikoa, erlijiosoa eta kulturala, gure gizartea askotarikoa baita eta gure artean etengabe eraldatzen baitira ohituren eta ekitaldi sozialen adierazpenak.

Gaur egungo gizartean ezinbestekoa da hildakoen aldeko hileta edo agur zibilak egiteko aukera ematea, erlijiorik gabe bizitzea hautatu dutenen omenez halako ospakizun duin nahiz pertsonala egin ahal izateko, zenduaren bizitza ikuskeraren arabeko ekitaldiak antolatzeko, alegia. Izan ere, adituen iritziz, erlijiorik gabeko herritarren kopurua %10-%20koa da gaur egun, eta kopuru hori %40ra iritsiko da datozen urteetan.

Gure gizarteko erlijio guztien jarraitzaileek hildakoak omentzeko ospakizun liturgikoak antolatzeko tokiak edo tenpluak dituzten gisa berean, Altsasuko Udalari dagokio gure herritarrek gero eta maizago eskatzen duten behar sozialari erantzutea.

Honako ordenantza honen asmoa da, beraz, zenduen aldeko omenaldi edo agur ekitaldien baimen eta ospakizunak arautzea, hildakoen familiakoek, adiskideek eta gure herriko gizarte zibila osatzen duten erakunde nahiz elkarteek hildakoek komunitateari egindako ekarpenak edo haien balio etikoak eta giza-balioak aitortzeko antolatu nahi dituzten horiek alegia.

I. KAPITULUA **XEDEA**

1. artikulua. Baimena eta Udalaren lokalen erabilera arautzea ditu xede ordenantza honek, Altsasuko udal mugapean hileta edo agur zibilak egiteko.

II. KAPITULUA **BAIMENA**

2. artikulua. Alkateak edo hark eskuordetzen duen zinegotziak emanen du hileta edo agur zibiletarako gordetzen diren gunek erabiltzeko baimena, betiere Altsasuko Udalaren Erregistroan eskabidea zuzentzen duen ahaideak edo pertsonak bidali beharko dituen agiriak jaso ondoren.



Altsasuko Udala
Ayuntamiento de Alsasua
I.F.K. / C.I.F.: P-3101000-B

☎ 948 56 21 61
FAX 948 56 38 55
www.alsasu.net
alsasu@alsasu.net
✉ Garcia Ximenez 36 - 31800

III. KAPITULUA PROZEDURAREN HASIERA

3. artikulua. Hileta edo agur zibilak egiteko eskaerak Altsasuko Udaleko Alkatetzari zuzenduko zaizkio, Herri Administrazioen Araubide Juridikoari eta Administrazio Prozedura Erkideari buruzko azaroaren 26ko 30/1992 Legeak onartzen dituen moduetako edozein erabilita.

4. artikulua. Hileta edo agur zibilak egiteko eskaerak oso azkar tramitatuko dira, egoerak hala eskatzen baitu. Horretarako, ebazpena emateko eskua duen pertsonari igorriko zaizkio.

5. artikulua. Eskabideetan honako datuak agertuko dira:

- a) Ospakizuna egiteko baimena eskatzen duenaren izen-abizenak, helbidea eta identifikazioa.
- b) Hildakoaren izen-abizenak.
- c) Eskabidean adierazi beharko da zer egunetan eta zer ordutan egin nahi den hileta edo agur zibila.
- d) Oro har, ospakizun horiek Gure Etxeako beheko solairuko aretoan egingen dira, salbu eta eskatzailearen iritziz ekitaldira joanen diren pertsonen kopurua aretoak har dezakeena baino handiagoa denean. Kasu horretan, inguruabar hori espresuki adieraziko da eta edukiera handiagoko udal aretoaren batean egiteko baimena eskatuko da.
- e) Administrazioa, ahal duen heinean, eskabidean adierazitako egun eta orduak errespetatzen saiatuko da, eskabideak aurkeztu diren hurrenkerari begira betiere. Halako kasu berezietan hurrenkera hori aldatzen ahalko da, aldaketa hori behar bezala arrazoituz betiere.
- f) Eskabidea zein tokitan eta zein egunetan aurkezten den.
- g) Eskatzailearen sinadura edo edozein bide erabili beharko da haren gogoia benetakoa dela frogatzeko.
- h) Aldez aurreko ordainketa egin izanaren ordainagiria gehituko zaio eskabideari, udal aretoak erabiltzeko tasa arautzen duen ordenantza fiskalak ezartzen duen moduan.
- i) Ekitaldiaren azalpen laburra, eta beharko den materiala (megafonia, mahaiak, aulkiak etab.).

6. artikulua. Eskabidean aurreko artikuluan zehazturiko baldintzak betetzen ez badira, interesdunari ahalik eta lasterren eskatuko zaio akatsa zuzen dezan edo aginduzko agiriak ekar ditzan, ekitaldia egin baino lehen edo ondoren.



Altsasuko Udala
Ayuntamiento de Alsasua
I.F.K. / C.I.F.: P-3101000-B

☎ 948 56 21 61
FAX 948 56 38 55
www.altsasu.net
altsasu@altsasu.net
✉ Garcia Ximenez 36 - 31800

IV. KAPITULUA

PROZEDURAREN INSTRUKZIOA

7. artikulua. Hileta edo agur zibila egiteko eguna eta ordua alkateak edo eskuordetzen duen zinegotziak ezarriko du, Altsasuko Udaleko Zerbitzu Orokorren alorrak behar den espedientea instruitu ondoren betiere.

Hori guztia eginen da eskabideak aurkeztu diren hurrenkerari begira, eta kontuan hartuz, ahal den heinean, eskatzaile bakoitzak nahiago dituen egun eta orduak. Aparteko inguruabar objektiboak eta premia larria dagoenean, aukera egonen da eskabideak aurkeztu diren hurrenkerari ez begiratzeko. Nolanahi den ere, behar bezala arrazoitu beharko da aparteko premia larria, eta zegokien eskubidean aldaketa jasan dutenei entzun beharko zaie.

8. artikulua. Eskabidea ikusita, alkateak, edo hark eskuordeturiko zinegotziak hileta edo agur zibila Udalaren zein aretotan eginen den erabakiko du. Gure Etxeako beheko solairuko aretoa erabiliko da, oro har. Aparteko kasuetan, bestelako lokalak erabiltzeko baimena eman ahalko da.

9. artikulua. Hileta edo agur zibilak astelehenetik igandera ospatu ahalko dira, eta beharrezkoak diren udal baliabideak erabili ahalko dira.

10. artikulua. Hileta edo agur zibilak egiteko ordutegia: 11:00etatik 13:00etara goizez, eta 16:00etatik 18:00etara arratsaldez. Ospakizunak gehienez ere berrogeita bost minutu iraunen du.

11. artikulua. Altsasuko Udaltzaingoa hileta edo agur zibila ospatzeko ekitaldi osoan zehar kanpoaldean izanen da, ospakizuna behar bezala egiten dela bermatzearen.

III. KAPITULUA

ESKUBIDEAK ETA BETEBEHARRAK

12. artikulua. Ospakizunetarako aretoak behar bezala zaintzen direla bermatzearen, bertaratuek ezin izanen dute egin Udalaren egoitzak hondatu edo haietan kalterik eragin dezakeen deus ere.

13. artikulua. Ekitaldiaren hotsanditasunak eskatzen duen modukoa izanen da aretoa. Hala ere, familiartekoek edo adiskideek aretoa apaindu edo egokitu nahi badute, udal arduradunari behar bezain garaiz jakinarazi beharko diote, hark behar den erabakia har dezan. Tokiaren harmonia eta ezaugarriak begiratuko dira beti, eta haien kontura izanen dira apainketa eta egokitze gastu guztiak. Interesduna arduratuko da, bere kontura arduratu ere, ekitaldia ospatzeko zerbitzu osagarriez. Altsasuko Udalak zerbitzu horiek ikuskatuko ditu, hala ere.

14. artikulua. Eskatzaileak eremu publikoa erabiltzeko eskatzen badu hileta edo agur zibila egiteko, espresuki zehaztu beharko du eskubidean. Udalak erabiliko den eremu publikoa itxiko du, eta arestian aipatutako eskubide eta betebeharrak izanen ditu.

15. artikulua. Ordenantza honetan aurreikusten ez den orotan, udal arduradunen jarraibideak bete beharko dira.



Altsasuko Udala

Ayuntamiento de Alsasua

I.F.K. / C.I.F.: P-3101000-B

☎ 948 56 21 61

FAX 948 56 38 55

www.alsasu.net

alsasu@alsasu.net

✉ Garcia Ximenez 36 - 31800

Xedapen gehigarria. Altsasuko alkateari baimena ematen zaio honako ordenantza hau aplikatzeko behar diren jarduketa guztiak egin ditzan.

Azken xedapena. Honako ordenantza honek indarra hartuko du Nafarroako Aldizkari Ofizialean osorik argitaratu eta biharamunean, eta Udalak osoko bilkuran espresuki aldatu edo indargabetu arte egonen da indarrean.